

Inkesta Soziolinguistikoa

EAEko datuen azterketa

Euskararen Gizarte Erakundeen **Kontseilua**

2008ko uztailean



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Aurkibidea

- Hizkuntza-gaitasuna.....3
- Taldeen ezaugarriak hizkuntza-gaitasunaren arabera.....4
- Gaitasun erlatiboa.....4
- Hizkuntzaren transmisioa.....5
- Irabaziak eta galerak.....6
- Euskara irabazi dutenen ezaugarriak.....6
- Erabilera.....7
- Euskararen sustapena.....8
- Ondorio orokorrak.....9

Inkesta Soziolinguistikoa: EAEko datuen azterketa

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak IV. Inkesta Soziolinguistikoaren EAEko emaitzei buruzko irakurketa hau egin du:

Hizkuntza-gaitasuna	
<ul style="list-style-type: none"> • % 30,1 elebidunak dira • % 18,3 hartzaileak dira • % 51,5 erdaldun elebakarrak • 15 urtez % 6ko hazkundea izan da. • Gipuzkoan elebidunak % 49,1 dira, Bizkaian % 23,0 eta Araban % 14,2. • Multzorik erdaldueña heldueña da. 35 - 64 	<ul style="list-style-type: none"> • Oso desoreka handiak daude herrialdeen artean, beste gauza batzuen artean, toki administrazioak oso politika desberdinak aplikatzen dituelako. • 15 urtez 6 puntu irabazi dira. Erritmo honi segituz, 175 urte beharko lirateke ezagutza unibertsalera iristeko. Onartezinezko erritmoa da. • Hizkuntza politikak izan duen tesi nagusia izan da belaunaldi berrietan zegoela normalizazioaren gakoa. Helduen euskalduntzea bazterturik egon da urte askotan eta helduen alorrean dagoen erdaldun-tasa handia ulertzeko datuetako bat da. <p>Hartu beharreko neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskalduntzea lortzen duten ereduak hedatu behar dira hezkuntza-sistema osoan belaunaldi berriak osorik euskaldundu ahal izateko. • Epe onargarri batean belaunaldi berriak osorik euskalduntzea lortuko duen sistemarako oinarriak jarri behar dira • Sistema bera euskalduntzeko bitartekoak jarri behar dira. Langile berrien kontratazioan euskararen ezagutza bermatuz eta gainerakoei derrigortasun data ezarriz. • Helduen euskalduntzeari izaera estrategikoa aitortu behar zaio, doakoatasuna bermatu eta pertsona helduei lantokietan erraztasunak eman behar zaizkie euskara ikasteko.

Taldeen ezaugarriak hizkuntza-gaitasunaren arabera

- Elebidunen erdiak baino gehiago guraso euskaldunak ditu.
- EAEn jaio dira eta gurasoak bertakoak dituzte.
- Erdiak baino gehiagok euskara du lehen hizkuntza.
- Heren batek baino gehiagok D ereduan ikasi du.
- Elebidun hartzaile gehienek gaztelania dute lehen hizkuntza, giro erdaldunetan bizi dira eta gune erdaldunetan. Oro har, ez dute euskararekiko interes berezirik.

- Guztiz kezkarria da ikustea EAEko elebidun hartzaileek ez dutela interes berezirik euskara sustatzen. Multzo bereko herritarrek Nafarroan eta Iparraldean interes handia dute. Hauen gaitasun arazoak batetik eta interes faltak bestetik erabileran eragiten dute.

Hartu beharreko neurriak:

- Euskararen ezagutza eta erabilera beharrezko bihurtu behar da hizkuntza-politika eraginkor baten bitartez.

Gaitasun erlatiboa

- Euskal elebidunak % 31.8
- Oregatuak % 28.5
- Erdal elebidunak % 39.7

- Inkesta soziolinguistikoa oso lausoa da multzoak egiteko unean. Normalizazioaren ikuspuntutik lehenengo bi sailkapenak dira interesgarrienak hizkuntza sortzeko aukera dutelako. Erdal elebidunek euskara erabiltzeko arazoak dituzte gaitasun faltak eraginda.
- Gazteen artean multzo handiena erdal elebidunena da. Bertan daude erabilera-arazoak ulertzeko arrazoiak.
- Araban erdal elebidunen multzoa hain handia izatea kezkarria da. % 65,9 dira.

Hartu beharreko neurriak:

Hizkuntzaren kalitateari garrantzia handia eman behar zaio ikaste prozesuan. Horretarako eredu egokiak eskaini behar dira eta batez ere, erabiltzeko aukera errealak sortu behar dira hizkuntza-politika eraginkor baten bitartez.

Hizkuntzaren transmisioa

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Lehen hizkuntza euskara % 18.7 • Euskara eta frantsesa % 5.1 • Lehen hizkuntza frantsesa % 76.2 • Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak murriztuz doa adinean behera egin ahala. Gazteen artean joera aldaketa dago. • Bi gurasoak euskaldunak izanik % 84,9ak transmititu egin du. • Guraso bat erdalduna izanik, ordea, % 39,4ak euskara transmititu du. • Bikotekideen hizkuntza-gaitasunak erabat baldintzatzen du seme-alabei transmititzen zaien hizkuntza. Gurasoak elebidunak direnean euskara etxean jasotzen dute. | <ul style="list-style-type: none"> • Oso kontuan hartzeko datua da bi gurasoak euskaldunak izanik lortzen den transmisio kopuru handia. Horrek agerian uzten du belaunaldi berriei, beren osoan, kalitatezko euskara eskaintzearen beharra, etorkizuneko gurasoak izango baitira. Agerian uzten du ere, dentsitate handiko herrialdeetan lana ongi eginez gero aukera handiak ditugula transmisio bitartez normalizazioan aurrera egiteko. • Gurasoetariko bat euskalduna ez denean ere lortzen den transmisio-tasa handia iruditzen zaigu. • Bestalde, bikote mistoetan “euskara bakarrik” transmititzen dela esatea nahiz eta kopuru txikian izan metodoaren errorea dela uste dugu. • Transmisio datu hauek ez datoz bat HPStik etengabe erabileraren inguruan zabaltzen duten mezu ezkorrekin. Euskara erabiliz transmititzen da eta. Erabileraren arazoak, beraz, aukera faltan aurkitu behar dira eta ez euskaldunen axolagabekeria. |
|--|--|

Hartu beharreko neurriak:

- Euskalduntze/alfabetatzeak lehenetsun estrategikoz lan egin beharko luke bikote mistoekin bereziki, dentsitate handiko zonaldeetan.
- Belaunaldi berriak osorik eta kalitatez euskaldundu beharko lirateke.

Irabaziak eta galerak	
<ul style="list-style-type: none"> • Lehen hizkuntza euskara izan arren, euskara galdu du erabat edo partzialki 59.973 pertsonak. • Lehen hizkuntza gaztelania izanik 178.036 pertsonak euskara eskuratu dute. • Euskaldunberrien proportzioa oso antzekoa da hiru lurraldeetan: % 10,2 Araban, % 9,1 Bizkaian eta % 10,3 Gipuzkoan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kopuru horiek nabarmen handitu behar dira epe laburragoan euskara normalizatu nahi badugu. • Ezagutza- eta erabilera-tasa oso desberdinak badira ere denak berdin haztea kezagarritzat jotzen dugu. Ezagutza- eta erabilera-tasa handiak azkarrago hazteko aukera eskaini beharko liguke baldin eta politika egokiak aplikatuko balira. Hizkuntza-politikak alderik erdaldunena hartzen du oinarritzat hazkundera eragotziz.
Euskara irabazi dutenen ezaugarriak	
<ul style="list-style-type: none"> • Gehienak gazteak dira. • Irabazi dutenen laurdena 35 eta 49 urte bitarteko multzoan dago • Gehienak % 78 errazago moldatzen dira gaztelaniaz. 	<ul style="list-style-type: none"> • Datuetatik ondorioztatzen da helduen euskalduntze alfabetatzeak ahalegin handia egin duela 35 – 49 urte artekoek ez dutelako eskolan ikasi. • Kezkatzekoa da hala ere, euskara jaso badute ere gehienek hobeki hitz egiten dutela gaztelaniaz. Horrek eragin zuzena izango du erabileran. <p>Hartu beharreko neurriak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lan berezia egin beharko litzateke euskara irabazten dutenen hizkuntza kalitatea hobetzeko.

Erabilera

- % 18,6k euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen du.
- % 70,4k ez du erabiltzen gaztelania besterik.
- Erabilerak gora egin du. 1991.ean % 15,3koa zen.
- Alde handiak daude herrialde batetik bestera. Araban % 3,3; Bizkaian % 12,5 eta Gipuzkoan % 35,6. Aipagarria da Nafarroako eremu euskaldunetan % 46,5eko tasa dugula % 60,1eko tasa batekin.
- *“Egia da, hala ere, euskara erabiltzeko baldintza egokiak behar direla, eta horiek oraindik EAEko esparru eta gune gutxitan ematen direla.”*
- *“Euskara erabiltzeko baldintzak egokiak direnean, elebidunek euskara erabiltzen dute eguneroko jardunean”*
- Euskara gehien erabiltzen dutenak euskal elebidunak dira. % 98k nagusiki euskara edo gaztelania beste.
- Oreaktuen kasuan % 71,7k

- Guztiz logikoa da erabilera ez handitzea portzentualki ezagutzaren parean. Izan ere, erabilera aukerek mugatzen dute eta euskaldun gehiago egote hutsak ez ditu erabilera aukera sozialak proportzio berean handitzen. Bestalde, erdal elebakarraren presentziak segitzen du gogor eragiten ezagutzan emandako pausoa ez baita sobera handia izan.
- Erabilpen sozialerako aukerak urriak dira txostengileek beraiek aitortzen duten bezala. Aukerak handitu gabe ezingo da erabilera areagotu.
- Bestalde, azpimarratu behar da hizkuntza baten erabilera ez dela pertsonen arteko solasa bakarrik. Etiketak, publizitatea eta idatzizko milaka euskarri irakurtzea ere erabilera bada ere horiek ez dira kontuan hartzen.
- Nafarroan EAEn bezala euskara ofiziala den lekuan ezagutza eta erabilera handiagoak dira EAEko alderik euskaldunenean baino.
- Euskal elebidunen eta oreaktuen kasuak (euskara egoki erabiltzen dutenen kasua) oso ehuneko altuan erabiltzen dute. Beraz, horrek guztiz ezabatzen du HPSk etengabe ematen duen axolagabekeria irudia. Euskara erabili egiten da baina, aukera sozialek ez dute ahalbidetzen.

Hartu beharreko neurriak:

- Erabilera areagotzeko lehenago ezagutza unibertsalerako pauso sendo eta azkarrak eman behar dira.
- Euskara beharrezko bihurtzen duten erabaki politiko estrategikoak hartu behar dira.
- Erabilera idatzizkoa era badela ulertu behar da eta neurri politiko eraginkorrak hartu behar dira euskararen presentzia bermatzeko.

Euskararen sustapena

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none">• Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin.• Biztanle gehienei ezinbestekoa irizten zaie haurrak euskara ikastea (% 82) eta Administrazioan sartzeko euskara jakitea (%75). | <ul style="list-style-type: none">• Datuok garbi adierazten dute beste politika bat posible dela herritarrek sostengua emango bailiokete. |
|--|---|

Ondorio orokorrak:

1. 15 urteko epean lortu ahal izan den aurrerakuntzaren proiektzioa etorkizunera egiten badugu ohartuko gara erritmo onartezina dela euskararen normalizazioa nahi badugu.
2. Erdal elebidunek EAEen bakarrik adierazten duten motibazio falta hizkuntza politika desegoki baten fruitua da. Dena ongi doalako mezu faltsua sektore hori desmotibatu egin du.
3. Urte hauetan guztietan herri mugimenduak egin duen lan eskergea ongi islatzen da datuotan. Ezagutzari dagokionez, Helduen Euskalduntze Alfabetatzeak eta Hezkuntza Sistemaren bitartez azken 15 urteotan lortutakoa oso agerikoa da.
4. Erabilerari buruz Eusko Jaurlaritzak etengabe zabaltzen duen mezua guztiz okerra dela adierazten dute datuok. Izan ere, aukerak dituen euskaldunak oso kopuru altuetan erabiltzen du. Aukera faltan dago arazoa eta horiek ez baditugu, hizkuntza politikaren desegokitasunaren adierazlea da.
5. Euskararen normalizazioa azkartu behar da eta horretarako honako neurri hauek hartu beharko lirateke:
 - Euskararen estatusa gaztelaniak duenarekin berdindu behar da.
 - Euskaldunon hizkuntza eskubideak babestuko dituen corpus juridikoa osatu behar da
 - Hizkuntza politika eraginkorra abiatu behar da.
 - Hezkuntza Sistemak belaunaldi berriak osorik euskaldundu behar ditu. Goi mailako ikasketen eskaintza euskaldundu behar da.
 - Administrazioa eta bere zerbitzuak euskaldundu behar dira. Euskaldunak kontratatzea, euskarazko zirkuituak sortzea eta euskalduntzeko epeak zehaztea dira jorratu beharreko bideak.
 - Alor Sozioekonomikoa euskalduntzeko bide eraginkorrak jarri behar dira.
 - Berdin gizarteko beste alor batzuetan ere, aisia, kirola, hedabideak, kultura...
 - Diru baliabideak, administratiboak eta giza baliabideak nabarmen handitu behar dira.
 - Helduen euskalduntzeari izaera estrategikoa aitortu behar zaio

Neurri horiek hartuz gero, euskararen normalizazioak dagokion erritmoa hartuko du. Zeregin horretan sor litezkeen zailtasunak gainditzeko Kontseilua elkarlanerako prest agertzen da.